

# Adi egon! AHTaren Nafarroako korridoreko obrak hasi dira jada/Ya se han iniciado las obras del corredor navarro del TAV



Hain zentzugabea da eta hainbeste arazo sortu dira tartean, egingo ez dutenaren iritzia zabalduz joan dela. Aitzitik, **obrak jada hasi dituzte**. Zehazkiago, Azkoien eta Erriberri arteko plataforma eraikitze lanak. Alesbes eta Azkoien arteko tartean ere luze gabe hasiko dira. Gainera, Adif-ek Erriberri eta Tafalla arteko tartea lehiara atera ditu.

Hau guztia, Europar Batasuneko Kontuen Auzitegiak abiadura handiko europako tren sareari buruzko txosten bat plazaratu ostean. Txosten horretan aztertutako trenbide gehienak garesti, ezeraginkor eta errentagarritasun sozioekonomikorik gabeak direla azaleratu dute; bereziki Espainiar Estatuan, eraikitako tren linea gehienetan bidaiari gutxiegiz izatea salatu dutelarik. Txostenean ondorioztatu dute "abiadura handiko trenbideak eraikitzea erabaki politikoetan oinarritu ohi dela". Nafarroako korridorea horren adibide nabarmena da.

Nafarroako Gobernua eta Iñigo de la Serna PP-ko ministro ohiak ordezkaturiko Sustapen Ministerioaren arteko kulebroia eta gero, Adif-ek, jada, bi trenbide zati esleitu ditu. Hasi berri dutena (Azkoien-Erriberri), **AZVI Construcción** enpresaren esku dago. Ia 30 milioi euro. AZVI-ko buru, Manuel Contreras Carok, Andaluziako PP-rekin harreman estua du eta bere izena hainbatetan agertzen da PP-ko diruzain ohi izan den Luis Bárcenasek eramaten zituen kontabilitateko diru-sarrereren zerrendan, orotara 900.000 euro baina gehiagoko diru partidetan. Gómez Bermúdez epaileak inputatu gisa deklaratzera deitu zuen, PP-ri dirua eman izanaren susmopean. 2015eko apirilean, Pablo

Ruz-ek legez kanpoko donazioen eta obra publikoen inguruko kontratu handien esleipenaren arteko lotura ez zela frogatu ondorioztatu zuen. Epaileek baieztatu zuten PP-k legez kanpoko donazioak jaso zituela baina emaleak, enpresa eraikitzaileak, ez ziren kalteturik suertatu. Bitxia.

Hurrengo trenbide tarteak, Alesbes eta Azkoien artekoa, Juan Miguel Villar Mir buru duen **OHL** enpresari esleitu zaio 56 milioi euroren truke. Gizon hau Púnica auzian inputatu gisa deklaratzera deitu dute obra publikoak esleitzearen truke Madrileko PP-ko b diru-kutxan dirua sartu izanaren susmopean.

Laburbilduz, AHTaren Nafarroako korridoreak milioika euroren xahuketa eragiteaz gain, lurraldea andeatu eta Nafarroako hainbat herri tren zerbitzurik gabe uzteaz aparte, ez du bidaiari nahikorik izanen eta ez du merkatziak garraiatzeko balioko. Zer dela eta tematzen dira hortaz?

**Beste arrazoi bat otu zaigu: guztion diruaz enpresa eraikitzaile lagunak elikatzen jarraitzea. Hau da, euren mozkinak handitzeko beste guztioi lapurtzea. Eta dena aurrerapen, garapen eta lehiakortasunaren mantrapean.**

“Ez dute egingo” doinua lagunduz “hau ezin da gelditu”dabil. Haatik, ziur galtzen den borroka bakarra albo batera uzten dena da. Hori dela eta, hurrengo deialdiei adi egoteko gonbidapena egiten dizuegu.

**AHT Gelditu Elkarlana Nafarroa**

**¡Adi egon! Ya se han iniciado las obras del corredor navarro del TAV**

Es tal el despropósito y tales las dificultades encontradas que la opinión de que no lo van a hacer se ha ido extendiendo. Sin embargo, **las obras ya se han iniciado**. En concreto los trabajos para la construcción de la plataforma entre Peralta y Olite. Y no está lejos que comiencen también el tramo entre Villafranca y Peralta. Además, Adif acaba de sacar a concurso los tramos que discurren entre Olite y Tafalla.

Todo ello después de que el Tribunal de Cuentas de la Unión Europea haya hecho público un informe sobre la red ferroviaria europea de alta velocidad en donde califica la mayoría de estas

líneas como caras, ineficientes y sin rentabilidad socioeconómica. Especialmente en el Estado español en donde denuncia la falta de pasajeros en la mayoría de las líneas construidas. El informe acaba afirmando que “la decisión de construir líneas del alta velocidad se basa habitualmente en decisiones políticas.” Este es claramente el caso del corredor navarro.

Después del culebrón entre el Gobierno de Navarra y el Ministerio de Fomento a cargo del ex-ministro del PP, Iñigo de la Serna, Adif ya ha adjudicado dos tramos. El que se ha iniciado (Peralta-Olite) le corresponde a la empresa **AZVI Construcción**. Casi 30 millones de euros. Su presidente, Manuel Contreras Caro, mantiene una estrecha relación con el PP andaluz y su nombre figura una decena de veces en el listado de ingresos de la contabilidad que llevaba el extesorero del PP Luis Bárcenas, con partidas que en total superan los 900.000 euros. En su día fue llamado a declarar como imputado por el juez Gómez Bermúdez por ser presunto donante del PP. En abril de 2015 Pablo Ruz concluyó que no se había acreditado la vinculación entre las donaciones ilegales y la adjudicación de grandes contratos de obra pública. La judicatura afirmó que el PP había recibido donaciones ilegales, pero los donantes, las constructoras, salieron indemnes. Curioso.

El siguiente tramo, entre Villafranca y Peralta, ha sido adjudicado por 56 millones a **OHL** cuyo presidente, Juan Miguel Villar Mir, ha sido llamado a declarar como imputado en el caso Púnica por las supuestas donaciones a la caja b del PP de Madrid a cambio de la adjudicación de obra pública.

En resumen, el proyecto del corredor navarro, además de costar millones de euros, degradar el territorio y dejar sin servicio a varios pueblos de Navarra, no tendrá un número suficiente de pasajeros y será incapaz de transportar mercancías. ¿Por qué se empeñan en construirlo entonces?

**No se nos ocurre otra razón: seguir alimentando a las constructoras amigas con el dinero de todos y todas nosotras. Es decir, robarnos para hacer crecer sus beneficios. Todo bajo el mantra del progreso, el desarrollo y la competitividad.**

Acompañando al sonsonete del “no lo van a hacer” está el de “esto no se puede parar”. Sin embargo, la única lucha que seguro

se pierde es la que se abandona. Por eso os invitamos a estar atentas a las próximas convocatorias.

**AHT Gelditu Elkarlana Nafarroa**